

# ZORTE-KONTUA



© Egilea: Xabier Galarreta

Gizon biluzia baitzen, lotsaz begiratzen zion munduari. Korapiloak maite izan zituen klase horretako gizona izana zen. Hartaz, ordea, pindarrak geratzen ziren egun, ez besterik. Zerbait (handia!) egiteko garaiak joanak ziren. Betiko. Orain, nostalgia eta bat zapuztuta dagoenean geratzen zaion mina zituen euskarri –ez bata ez bestea bat ere gozoak ez!–. Dado batzuk zituen eskuan, eta distrautuki jaurti egiten zituen, emaitzaz arduratzen ez bazen ere (itxuraz, bederen).

Laku baten ondoan, hondartza moduko batean jolasean ari ziren haur batzuei begira geratu zen. Gogoratu zitzaizkion bere seme-alabak, auskalo nora joanak, aspaldian eten baitzituen harreman oro bere familiarekin. Emaztea, seme-alabak, txakurra, arreba, koinatuak, aita-amaginarrebak... Denak denboraren zuloan galduak, atzean utziak, erabaki salomoniko eta inkontziente baten ondorioz.

Haurretako batek pilotarekin aurpegian kolpe gogorxea hartu eta negarrez hasi zen, ikaragarri handia begitandu zitzaion hortz eskaseko aho bat pentsaezineraino zabalduz. Grazia egin zion eta irriño bat margotu zitzaion aurpegian, instant batez baizik iraun ez ziona.

Sorbaldetan pisua bezalako zerbait sumatzen zuen, aspalditik sumatu ere. Ez zekien

gaitz fisiko ala psikikoa ote zen. Axola handirik ez, han, inorenganako paisaia mortu hartan, atzerriko alderdi ia desolatu batean, zeinera iritsia baitzen duela egun gutxi batzuk, bere autokarabana txikian, batetik bestera ibiltzea ezinbesteko premia bilakatu zitzaionetik –batzuetan bere buruari galde egiten zion ez ote zegoen gaixorik...

Holaxe bizi baitzen, buhameen modura, bakarti, familia- eta lagun-harreman egonkorrekiko lokarririk gabe, bere ametsa bete eginik. Bai! Haren ametsa, aspaldikoa, familia-harremanak oinaze gisa bizi izan zituenetik, seme-alabak noiz handituko irrikan, mundu guztiari agur esateko gogoz, baina hots eta arrandia handirik gabe. “Hartu autokarabanatxoa eta banoak hemendik!”

Ez zen turismoa, hori baino gehiago baizik. Askozaz gehiago, izan ere. Ulises berri bat. XX. mendeko Ulises bat, itsaso solido bat zeharkatzen, bere Itaka maitea gogoan beti –halaxe dagi amets txerriak bere ezkurrarekin!–, hantxe, inon ere ez, Europa zaharkitu hartako bide-errebolta bakoitzean geldituz, miretsita txoko-bazter bakoitzaren aurrean –askotan zuhaitz baten enbor apetatsuz gozatzeko gelditu egiten zela pentsatzea ere!–...

Dadoak botatzen jarraitu zuen zertan zebilen ohartu ere egin gabe. Une jakin batzuetan, pentsamenduak trumilka etortzen zitzaizkion; eta ondoren, bere buruak isiltasunaren espresiorik

anckerren, biribilena zirudien. “Beti izan zuan berdin, beti”.

Orritxo batzuk baino ez zitzaizkion falta ondoan zeukan liburuari ere *agur* esateko. Liburu bakoitza despedida bat zela uste baitzuen erabili dut esapide ziztrin hori, *orriei agur esan*. Bera guztia zen nostalgia hutsa, herrimina, hizkuntza-mina, familia-mina, lagun-mina, haurtzaro-mina... Sadiko-masokista bat zen bere buruarekin, dudarik gabe.

Gogoratu zitzaion kazetari hura, prentsaurreko batean “zuzenketa” ergel bat egin zion huraxe. “Liburu horretaz baliatu naiz” berak, eta kazetariak honela zuzendu baitzion: “Liburu hau baliatu duzula esan nahi al duzu?”. “Batzuk irakaspenak eman nahi, eta ezin...”, pentsatu zuen, esan ez bazion ere. Barre egin zuen. Izan ere, garai batean garrantzia ematen zaie horrelako hutsalckeriei; orain, ordea, lau urtez egon zitekeen pasadizo hura gogoan izan gabe, eta nonbait noizbait burura etorritz gero, agerpen misteriotsua balitz bezala aztertuko zuen, oroitzapen horren inguruan egon litezkeen izadiko indar ilun eta azalgaitzen presentzia sumatu nahian edo...; bestela, barregura sortuko zion besterik gabe.

Jendea joana zen. Haurrak joanak ziren. Haurrak gogoko zituen. Haien barre-algarak, haien pitokeriak, haserrealdiak, ateraldiak... den-dena gustatzen zitzaion haurrengan. Baina denak joanak

ziren. Haren atzean, bere autokarabana txikia zegoen. Leku berean baziren beste batzuk, hantemen, asko ez (uda-garaia igaroa izaki). Ez zebilen inor une hartan. Bera eta paisaia, beste inor ez. Orduan, paratu zen eguzki-sartzeari begira, presarik gabe gauzatuz zihoana, une hunkigarri horren zain egona baitzen, eguneko unerik onenetako bat, juxtu eguzkia badoanean (beste despedida bat ote...?). Zuhaitzen hostailak ateratzen zuen zurrumurrua barne-barnean sartzen zitzaion. Pentsamendurik gabe geratu zen (itzuliko zitzaizkion berriro).

Dadoak bota zituen. Bikote bikoitza. Oraingoan bai, kontu egin zion emaitzari. Une batez, mezua deszifratzen saiatu zen. Gaua hantxe igaro behar zuen ala ez, esaterako. Finean, tontakeria bat. Baina...

Liburuari heldu zion eta azken orriak bukatu arte ez zion irakurtzeari utzi. Eta bukatu zuenean hantxe utzi zuen, eserlekuan bertan. Frantsesez idatzita zegoen. Behin, liburu-bildumatzaille amorratua izana zen; orain jada ez, ordea. Irakurritakoa edaten zuen ura edaten den indiferentzia berberaz. Ura hor dago. Ura beti hor dago. Egarri zarenean, edan egiten duzu, eta kito. Nola urarekin, halaxe liburuekin. Ez gehiago ez gutxiago. Liburuak elikagai bihurtuak, uraren premiekiko goratze-maila berberan jarriak. Eta naturaltasunez zegien hori (gauza ugariz zen kontzientea, horretaz ez baina).

Asperen egin zuen eta dadoak liburu gainean utzi zituen. Liburu bat nonbait lagatzen zuenean, beti jokatzen zuen berdin. Edo liburu barruan uzten zuen zerbait (landare-izpi bat, hosto bat, marrazkitxo bat, mezuren bat euskaraz –han atzerri mugagabe hartan inor gutxik ulertuko ez lukeena–), edo bestela zerbait uzten zuen liburuaren ondoan, dado batzuk oraingoan, liburuaz eginiko omenezko erreferentziatzat kasik jo zitekeena, izenburuarekin bat zetorren-eta: “C’est une question de chance”<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> “Zorte-kontua da”